



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Barakaldoko Udala

Iragarkia, Barakaldoko Udalean Musika-hizkuntzako/musikako irakaslea izateko plaza baterako hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoak onesteari buruzkoa.

Alkatetza-Udalburutzak, Alkatetzaren 2024ko abuztuaren 5eko 006882. Dekretuaren bidez, honako ebazpen hau eman du:

Lehenengoa: Barakaldoko Udalean musika-hizkuntzako irakaslea izateko plaza sarbide librearen bidez jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoak onestea.

Barakaldon, 2024ko abuztuaren 20an.— Alkatea, Amaia del Campo Berasategui

**BARAKALDOKO UDALEAN MUSIKA-HIZKUNTZAKO/MUSIKAKO IRAKASLEA
IZATEKO PLAZA BATERAKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN
OINARRIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

1.1. Deialdi honen xedea da musika-irakaslea izateko plaza karrerako funtzionario gisa betetzea. Musika-hizkuntzako espezialitatea, Barakaldoko Udaleko plantillan hutsik dagoena, sartzeko moduari, hautaketa-sistemari eta Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzko honako xehetasun hauen arabera:

- Musika-irakaslea.
- Lanpostua: 134010.
- Zuzkidura: 11.
- Taldea: A1.
- Eskala: administrazio berezia, azpieskala: teknikaria, kategoria: goi-mailako teknikaria.
- Euskararen hizkuntza-eskakizuna: 3 derrigortasun-data barik.

1.2. Hautaketa-probak deialdi-oinarri hauetan jasotakoaren arabera egingo dira, eta honako hauek osagarri gisa aplikatu ahalko dira oinarrietan jasota ez dagoenerako:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskara erabiltzearen normalizazioari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituenak.
- 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testuategia onetsi zuena.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarrizko arauak eta gutxienezko programak onetsi zituenak.
- 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazioaren zerbitzuan langile izateko, eta lanpostuen jabetza eta lanbidea sustatzeko araudi orokorra onesten duena.
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategia onesten duena.
- Barakaldoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko maiatzaren 19an egindako 17/2023 ohiko bilkuran, Barakaldoko Udaleko plantillako lanpostu hutsak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituenak.

1.3. Hautaketa-prozesua garatzen duen egintza oro publiko egingo da Barakaldoko Udalaren webgunean (www.barakaldo.eus) eta egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

**Bigarrenena. — Hautaketa-prozesuan parte hartuko duten pertsonen betekizunak**

2.1. Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- b) Hamasei urte edo gehiago izatea, eta derrigorrezko gehieneko erretiro-adina gainditu gabe edukitzea.
- c) Honako titulu hauek izatea: Musikako Goi Mailako Titulua, Hizkuntzaren eta Musika Hezkuntzaren Pedagogia espezialitatea (LOGSE), edo Solfeoko, Musikaren Teoriako, Transposizioako eta Akonpainamenduko espezialitateko Goi Mailako Titulua (66. plana).
- d) Musika-hizkuntzako/musikako irakasleari agindutako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Muga fisiko, psikiko edo sentorialak jasaten dituzten hautagaiak gainerakoen baldintza berberetan onartuko dira, betiere muga horiek bateraezinak ez badira dagozkien eginkizunak eta funtzioekin. Hautagai horiek, parte hartzeko eskabidea aurkezteko unean, jasaten duten desgaitasun-maila eta -mota zehazten dituen eta dagozkien eginkizunak eta funtzioak egiteko gaitasun funtzionala dutela dioten berariazko adierazpena eman beharko dute.
- e) Diziiplina-espediente bidez administrazio publikoetako edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik bereizita ez egotea, erabateko desgaitasun ez egotea, deialdiaren xede den lanpostuari dagozkien funtzioak betetzeko desgaitasunik ez izatea epai irmo bidez, edo diziplinaz kaleratua ez izana, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 2015eko urriaren 30eko Legearen 96.1 artikuluan jasotakoaren arabera. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpena izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

2.2. Hautaketa-probetara joan ahal izateko, nahiko izango da parte hartzea eskatzen dutenek baldintza guztiak betetzen dituztela adieraztea parte hartzeko eskabidean. Baldintza horiek zortzigarren oinarrian adierazitako unean eta dokumentazioarekin egiaztatuko dira.

2.3. Goian ezarritako betekizunak eskabideak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta karrerako funtzionario kargua hartu arte mantendu.

Hirugarrena. — Izena emateko eskabideak

3.1. Modua: Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea eredu normalizatura egokituko da, eta hori Barakaldoko Udalaren webgunean deskargatu ahal izango da (www.barakaldo.eus).

3.2. Epea: Eskabideak aurkezteko epea hogeitun egun baliodunekoa izango da, deialdi honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Garaiz eta behar bezala aurkeztu ez bada, parte-hartzailea kanpoan geratuko da.

3.3. Aurkezpenaren lekua: Eskabideak modu hauetakoren batean aurkeztuko dira:

- a) Aurrez aurre. Eskabidearen inprimakia, behar bezala beteta eta interesdunak sinatuta, Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztuko da.
- b) Modu telematikoan. Barakaldoko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez. Kasu horretan, eskaeraren dokumentua erregistroari erantsiko zaio, behar bezala beteta. Erregistroa egin ondoren, sistemak frogagiria emango du.
- c) Aurkezteko beste modu batzuk. Eskabideak, era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluko 4. zenbakian zehaztutako moduan ere aurkeztu daitezke. Postetxeen bitartez aurkeztutako eskabideak gutun-azal ireki baten barnean egon beharko dira, postako funtzionarioek ziurtatu aurretik data eta zigilua jarri ditzan horietan.



3.4. Eskabideak sinatzea: Eskabide-orriak hautagaiak sinatu beharko ditu, eta horietan jasota geratuko da oinarrietako baldintza guztiak betetzen dituela.

3.5. Parte-hartzaileak eskabideetan jasota utzi dituzten egintzei lotuta geratuko dira. Eskaera aurkeztu ondoren zuzenketarik edo aldaketarik egin nahi bada, aurkezteko epearen barruan egin beharko da, alkate-udalburuari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez. Eskabidean jakinarazpenetarako agertzen den bidea joko da baliozko bakartzat, eta hautagaiaren berariazko erantzukizuna izango dira kontsignazioan egindako akatsak eta eskabidean egindako edozein aldaketaren berri ez ematea.

3.6. Desgaitasuna duen hautagaiak deialdira aurkeztuz gero, gainerako baldintza berberak izango dituzte hautaketa-probak egiteko. Probak egiteko denbora edo baliabideak egokitzeko beharra badute, aitortuta duten desgaitasun-maila eta eskatutako denboraren edo baliabideen egokitzapena adierazi beharko dituzte eskabidean egotera horietarako ezarrita dauden laukitxoetan. Denbora egokitu behar denean, kalifikazio-epaimahaiak erabakiko du egokitzapenaren bidez kototasunaren eta zehaztapenaren inguruan, Lehendakaritza Ministerioaren ekainaren 9ko 1822/2006 Aginduaren bidez onetsitako baremoaren arabera. Agindu horren bidez, irizpide orokorrak ezartzen dira desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesuetan denbora gehigarriak izan ditzaten. Eskatutako egokitzapenak ezingo dute, inola ere, hautaketa-proben izaera indargabetu.

Laugarrena. — Hautagaiak onartzea

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, gehienez ere hilabeteko epean, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onetsiko duen ebazpena emango da. Gainera, Udaltzatuko iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Bertan, izen-abizenak, NANaren zenbakiaren ausazko lau zifra eta baztertu izanaren arrazoiak jasoko dira. Ebazpen horrek hamar egun balioduneko epea ezarriko du, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin-behinean kanpo geratu diren parte-hartzaileek aipatutako zerrendetatik kanpo geratu izana eragin zuten akatsak zuzendu ditzaten. Akatsak adierazitako epearen barruan zuzentzen ez dituztenek, alegazioak eginda eta onartua izateko eskubidea justifikatuta, hala badagokio, egiaztatzea aurkeztuz, behin betiko geratuko dira hautaketa-prozesutik kanpo. Akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak, baldin eta ez badaukarte hautaketa-prozesutik kanpo uztea, une oro zuzendu ahalko dira alkate-udalburuari idazkia bidaliz.

Hautaketa-prozesuetara aurkeztu diren hautagaiek onartuen edo baztertuen zerrendetan izen-abizenak kenduta izateko eskubidea izango dute, aldez aurretik genero-indarkeriaren biktima izan direla dioen ebazpen judiziala edo autoa aurkeztuz gero.

4.2. Akatsak zuzentzeko ezarri den epea igarotakoan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak onesten dituen ebazpena, bai eta lehenengo hautaketa-proba egiteko tokia eta eguna ere, eta 1.3 oinarrian jasotako lekuetan argitaratuko da.

4.3. Ezin dira zuzendu honako egoera hauek:

- Epea kanpo aurkezteak.
- Parte hartzeko baldintzak ez betetzea eskabidea aurkezteko azken egunean.

Bosgarrena. — Kalifikazio-epaimahaia

5.1. Kalifikazio-epaimahaiak emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna bermatuko du. Adierazitakoaren ondorioetarako, ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza duenean. Epaimahaia bost kide titularrek eta karrerako funtzionarioen arteko bost ordezkok osatuko dute.

Epaimahaia epaimahaiburu batek, idazkari batek eta lau epaimahaikidek osatuko dute, bai eta horien ordezkoez ere. Osaeran, aurreko paragrafoan ezarritakoa beteko da.



Botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deitutako plazetan sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulua izan beharko dute, eta horien erdiak, gutxienez, jakintza-arlo bereko titulua.

Hautaketa-epaimahaietako kideak norberaren izenean arituko dira beti; ezin izango da inoiz inoren ordezkari edo inoren kontura izan hautaketa-organoetako partaide.

Kalifikazio-epaimahaiak bere lanetan langile aholkulariak edo espezialistak sartzearabaki ahal izango du, hautaketa-prozesuan agertzen diren proba guztietarako edo batzuetarako; langile horiek haien espezialitateetan aholkularitza eta laguntza teknikoa ematera mugatuko dira.

Epaimahaia osatzen duten pertsonen abstentzioa eta errekusazioa Sektore Publiko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluekin bat etorritik egingo da.

Kalifikazio-epaimahaiko kide guztiek hautaketa-prozedurako hautagaiei eskatutako titulazio-maila bera edo handiagoa izan beharko dute eta espezialitate- eta profesional-tasun-printzipioa beteko da.

5.2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek ez dute hautaketa-prozesuan parte hartuko, eta alkateari jakinaraziko diote, baldin eta Sektore Publiko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan zehaztutako inguruabarretako bat gertatzen bada, edo deialdiaren xede den kidego, eskala, espezialitate edo kategoria profesional-lean sartzeko hautaketa-probetarako hautagaiak prestatzeko lanak egin badituzte argitaratu aurreko bost urteetan. Era berean, prozesuan parte hartuko dutenek epaimahaia osatzen duten pertsonak errekusatu ahalko dituzte aipatutako artikuluan jasotako inguruabarrak ematen direnean. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzako iragarki-taulan argitaratuko da ordezkoen izendapena, aurreko paragrafoan zehaztutako inguruabarretakoren batengatik kargua galdu dutenen ordezkariak.

5.3. Kalifikazio-epaimahaia balio osoz eratzeko, bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, kideen erdiak gutxienez bertaratu beharko dira, eta horien artean nahitaez egon beharko dute udalburuak eta idazkariak edo, hala badagokio, horien ordezkariak.

5.4. Kalifikazio-epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortu daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu, hautaketa-proben garapenari dagokionez, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan jarduteko moduari dagokionez ere, oinarriak eratzen direnetik izendapen-proposamena organo eskudunari eraman arte. Jarduteko prozedura Sektore Publiko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik da.

5.5. Kalifikazio-epaimahaietako buruek Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariari eskatu ahal izango diote aholkulari espezialistak izendatzeko, beharrezkotzat jotzen diren probetan. Era berean, probak egin bitartean antolaketa-, laguntza-, koordinazio- eta zaintza-kontuetan lagundu dezaketen langileak egon daitezke.

5.6. Hautaketa-prozesuan parte hartzeagatik bertaratze-aldia sortu ahal izateko, kalifikazio-epaimahaiak aukeratu behar duten plazaren titulazio-taldeari dagokion kategoria izango du, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 30. artikuluan aurreikusitako sailkapenaren arabera.

5.7. Kalifikazio-epaimahaiak hautaketa-prozesuan ematen dituen egintzen aurka errekurtsoa jarri ahal izateko, egintza horiek behin betikotzat edo izapide kualifikatutzat jo beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan arabera. Kasu horretan, ukitutako pertsonen gorako errekurtsoa jarri dezakete kalifikazio-epaimahaiko burua izendatu duen organoan, hilabeteko epean, errekurtsoaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ebazpenerako, organo horrek epaimahaiaren txostena izan beharko du, gehienez bost egun baliodunetan bidali behar diren errekurtsoan, txostenean edo argibideetan alegatutako alderdien inguruan.



5.8. Barakaldoko Udaleko plantillan hutsik dauden plazak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorrekin kalifikazio-epaimahaiari buruz emandako gainerako arauak.

Seigarrena. — Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena

6.1. Lehenengo proba egiteko eguna, ordua eta lekuak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutako zein baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda kaleratzean. Gainerako probak egiteko iragarkia epaimahaiak argitaratuko du, gutxienez probak hasteko jarritako ordua baino hirurogeita hamabi ordu lehenago, 1.3 oinarrian esandako tokietan.

6.2. Ariketa edo proba bat guztiz bukatzen denetik hurrengo hasi arte, gutxienez hamabi ordu igaro beharko dira, ariketa bera izatekotan, edo hogeita lau ordu, berria bada, eta gehienez berrogeita bost egun natural.

6.3. Edonola ere, probak egiteko gehieneko iraupena ez da bederatzi hilabete baino gehiagokoa izango, lehenengo proba egin den egunetik epaimahaiak proba gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu arte.

6.4. Epaimahaiak beharrezko neurriak hartu ahalko ditu bermatzeko, ezaugarri teknikoek aukera emanaz gero, probak zuzendu egingo direla horiek egin dituztenen nortasuna jakin gabe. Probetan izenak, ezaugarriak, markak edo nortasuna ezagutarazten duen beste edozein zeinu agerian uzten dituzten pertsonak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Hori guztia salbu eta azterketak jendaurrean irakurtzea aukeratzen bada; kasu horretan, ez da aurreko paragrafoan esandakoa aplikatuko. Epaimahaiari dagokio ariketak egitean sortu daitezkeen gorabeherak aintzat hartzea, ziurtatzea eta aztertzea, eta horri buruz egokitzeak jotzen dituen erabakiak hartuko ditu.

6.5. Epaimahaiak hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonen une oro eskatu diezaiekete haien nortasuna egiaztatzea.

6.6. Prozesuan parte hartzen duten pertsonen deialdi bakarra egingo zaie proba bakoitzerako, salbu eta hautagai-kopuruak, probaren izaerak edo beste edozein inguruarrek bi dei edo gehiago eskatzen baditu, eta proba esleitzen zaien lekuan, egunean eta orduan egin behar badute. Proba egitera agertzen ez direnek eskubidea galduko dute, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo, ezarritako datan proba egin ez duen arren, hautaketa-prozesua ohi bezala garatzeari eragiten ez dioten salbuespenezko beste kasu batzuetan. Horrelakoetan, kalifikazio-epaimahaiak aparteko deialdi bat egitea erabaki ahalko du. Nolanahi ere, ez da posible izango aparteko probarik egitea ohiko deialdia egiten den unetik eskatzailea proba egiteko moduan dagoen unera arte hilabete bat baino gehiago igaro bada.

6.7. Arriskuko haurdunaldia edo erditzea direla-eta hautagairen batek, behar bezala egiaztatuta, ezin badu hautaketa-prozesua osatu, prozesuaren amaieraren eta gerorotutako faseak gainditzearen mende geratuko da haren egoera, eta fase horiek ezin izango dira atzeratu gainerako hautagaiek prozesua arrazoizko denboren arabera ebatzeko duten eskubidea kaltetzen baldin bada. Epaimahaiak baloratu beharko du hori, eta, nolanahi ere, probak hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu aurretik egingo dira.

6.8. Hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean organo deitzaileen jakinean jarrita badago parte-hartzaile batek ez dituela deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen, kanpo geratuko da, entzunaldia egin ondoren.

6.9. Erabat debekatuta dute oposizio-gileek:

- Edozein ohar, liburu edo testu ezkutatzea edota erabiltzea.
- Beste oposizio-gileei kopiatzea edo elkarren artean komunikatzea.
- Komunikazioa ahalbidetzen edo informazioa eskuratzen laguntzen duten gailuak edo sistemak erabiltzea. Epaimahaiakideek ahalmena dute probetan iruzurrezko jardueraren bat egiten duena dagokion probatik kanpo uzteko, eta une oro egiaztatu ahalko dute hautagaiek ez dutela entzuteko aparaturik, ikusmen-sistema elektronikorik edo antzeko mekanismorik. Oposizio-gile arau-hauslea gelatik botako da eta ez zaio ariketa zuzenduko. Gainera, kalifikazio-epaimahaiak gertaeren berri emango du kasuan kasuko aktan. Kasu horretan, organo deitzaileak hautaketa-prozesutik kanpo utziko du hautagaia, bertan behera utziko ditu haren jarduketak guztiak, entzunaldia egin ondoren.

**Zazpigarrena. — Gainditu duten pertsonen zerrenda eta lan-poltsak**

7.1. Hautaketa-probak amaitu ondoren, kalifikazio-epaimahaiak 1.3 oinarrian ezarritako tokietan argitaratuko du proba gainditu duten pertsonen zerrenda, lortutako puntuazioa, NANaren ausazko lau zifra eta izen-abizenak adieraziz. Goian adierazitako zerrendek proba bakoitzean lortutako kalifikazioak aipatuko dituzte beren-beregi, eta ez da inola ere ulertuko zerrendetan ageri direnek hautaketa-prozesua gainditu dutenik. Horretarako, beharrezkoa izango da gainditu dute pertsonen behin betiko zerrendan agertzea.

7.2. Zerrenda hori behin-behinekoa izango da, eta behin betiko bihurtuko da proben edukiaren inguruan formulatutako alegazioak eta erreklamazioak aztertu ondoren, hala-korik egonez gero.

7.3. Probak egin dituztenek hiru egun baliodun izango dituzte alegazioak formulatzeko edo epaimahaiari erreklamazioak egiteko gainditutako hautagaien zerrendaren inguruan, epaimahaiak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Alegazio edo erreklamazio horiek kontuan hartuko ditu epaimahaiak eztabaidetan, eta gainditutako pertsonen zerrenda behin betiko argitaratzen ondorioztatzen den erabakiarekin ebatziko dira.

7.4. Hautaketa-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak Giza Baliabideen Sailaren zinegotzi ordezkariari jakinaraziko dio, puntuazio osoaren arabera, lanpostuaz jabetzeko eskubidea duen parte-hartzailea, izen-abizenak, NANaren ausazko lau zifra eta probetan lortutako puntuazioak adieraziz. Zerrenda horiek 1.3 oinarrian adierazitako tokietan argitaratuko dira.

Trebakuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta kidego, maila eta kategorian horietan emakumeen ordezkariak % 40 baino txikiagoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, hala nola laneratzeko eta lanpostuz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

7.5. Epaimahaiak ezin izango du adierazi deituriko plaza-kopurua baino hautagai gehiagok gainditu dutela hautaketa-prozesua.

7.6. Hautaketa-prozesua amaitutakoan, Giza Baliabideen Sailaren zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez onetsiko da kasuan kasuko lan-poltsa, Barakaldoko Udalaren Lan Poltsen Araudian ezarritako irizpideen arabera.

Zortzigarrena. — Agiriak aurkeztea

8.1. Hautaketa-prozesua gainditu duen pertsonak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hogei egun balioduneko epean, gainditutako zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

- a) Jatorrizkoa, gizarte-segurantzako afiliazio-txartelaren kopia konpultsatua uzteko.
- b) Jatorrizkoa, NANaren edo Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako nazionalitatea duten pertsonentzako dokumentu baliokidearen kopia konpultsatua uzteko.
- c) Zinpeko aitorpena, sektore publikoan lanposturik edo jarduerarik betetzen ez duela eta jarduera pribatu bateraezina gauzatzen ari ez dela dioena.
- d) Jatorrizkoa, eskatutako titulazio akademikoaren kopia konpultsatua edo titulu akademikoa eskatu izana egiaztatzen duen dokumentua uzteko. Titulazio homologatuak edo eskatutako baliokideak alegatzen dituztenek baliokidetasun hori aitortzen dien lege-xedapena aipatu beharko dute, edo, kasua bada, hezkuntza-arloko agintari eskudunek emandako ziurtagiria aurkeztu. Espainiako herritartasuna ez duten pertsonen kasuan, titulua Espainian homologatuta dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.
- e) Deitutako plazako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala dutela dion egiaztagiria. Desgaitasuna duten hautagaiek organo eskudunen ziurtagiria aurkeztu beharko dute oinarri honen arabera, deialdiko plazako eginkizunekin eta funtzioekin bateragarria dela egiaztatzeko. Ziurtagiri horrek desgaitasunaren tipologia eta ehunekoa zehaztu beharko ditu.



- f) Zinpeko aitortpena edo promesa, honakoa egiaztatzeko: edozein administrazio publikoren zerbitzuetatik edota autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik diziiplina espediente bidez baztertua ez egotea edota ebazpen judizial bidez gaitasun gabetu absolutu edo berezirik ez izatea lanpostu edo kargu publikoetarako, edo baztertua edo desgaitua dagoen funtzionarioen kidegora sartzeko. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak, halaber, ezin dira egon desgaituta (edo horren pareko egoera batean), eta ezin dute eduki ezarrita norberaren estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristea eragozten duen diziiplina-zehapenik ez horren parekorik.

8.2. Ezarritako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan edo organo deitzaileak aintzat emandako bestelako salbuespenezko egoeretan izan ezik, aurreko oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo agiri horiek aztertuta deialdian eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, lanpostuaz jabetzeko eskubidea galduko dute, eta beren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera faltsutzeagatik izan lezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

8.3. Eskatutako agiriak aurkeztea behar bezala justifikatzen ez bada, hautagaiak egiaztatu ahal izango du deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez.

Bederatzigarrena. — Lanpostua aukeratzea, izendapena eta lanpostuaz jabetzea

9.1. Destinoaren esleipena hautaketa-prozesuan lortutako puntuazio osoaren arabera egingo da.

9.2. Lanpostuaz jabetzea sinatuko da 8.1 oinarrian ezarritako dokumentazioa aztertu ondoren, gehienez hilabeteko epean, dokumentuak entregatzen amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

9.3. Langileen probaldia sei hilabetekoa izango da.

Probaldian zehar langileak bere kategoria profesionalari eta lanpostuari dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango ditu.

Hamargarrena. — Azken araua

Oinarri orokor hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko dira.

Interesdunek deialdiak, oinarriak eta horietatik eta kalifikazio-epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintzak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

**I. ERANSKINA****HAUTAKETA-PROZESUAREN DESKRIBAPENA**

Hautagaiak 1.1 oinarrian jasotako hautaketa-sistemaren bidez aukeratuko dira, eta III. Eranskinean dagoen programari jarraiki.

Oposizioa nahitaezko lau proba egitean datza, eta horietako batzuk hainbat zatitan banakatuta daude. Ariketak baztertzailerak izango dira. Oposizioko ariketa bakoitza baztertzailerak izango da, eta oposizioaren amaierako puntuazioa hura osatzen duten ariketa bakoitzean lortutako puntuen batura aritmetikoak zehaztuko du. Hona hemen ariketen ordena:

LEHENENGO PROBA: TEORIKOA**GAI OROKORRAK: GAIAREN GARAPENA 0-20 PUNTU**

Idatziz garatu beharko da, gehienez bi orduz, 1. Taldean (administrazioari buruzko gai orokorrak) ausaz aukeratutako gai bat.

Kalifikatuak izateko, kontuan hartuko dira ezagutza espezifikoen bolumena eta ulermena, azalpenaren argitasuna eta zehaztasuna eta izangaiaren idatzizko adierazpenaren kalitatea. Ariketa horiek hautagaiak irakurketa publikoan irakurri ahalko ditu epaimahai aurrean.

BIGARREN PROBA: TEORIKOA**AUKERATU DEN ESPEZIALITATEKO GAI ESPEZIFIKOAK: GAIEN GARAPENA 0-20 PUNTU**

Idatziz garatu beharko da, gehienez lau orduz, 1. Taldean (musika-hizkuntzaren espezialitateari buruzko gai espezifikokoak) ausaz aukeratutako bi gai. Kalifikatuak izateko, kontuan hartuko dira galderaren inguruko ezagutza espezifikoen bolumena eta ulermena gutun-azal, azalpenaren argitasuna eta zehaztasuna eta izangaiaren idatzizko adierazpenaren kalitatea. Ariketa horiek hautagaiak irakurketa publikoan irakurri ahalko ditu epaimahai aurrean.

HIRUGARREN PROBA**MUSIKA-HIZKUNTZAKO ESPEZIALITATEAREN PROBA PRAKTIKOA ETA ESPEZIFIKOA 0-40 PUNTU**

- Intonazioa lehen begiratuan: Epaimahaiak egindako proposamenen artean ausaz aukeratutako musika-hizkuntzako ikasgai bat lehen begiratuan intonatzea. Hamar minutu izango dira prestatzeko. 0 eta 10 puntu artean lortu ahal izango dira. Proba honetan hautagaiak gutxienez 5 puntu lortu beharko ditu prozesuan jarraitzeko.
- Musika-hizkuntzako ikasgai baten konposizioa, piano-akonpainamenduarekin: Epaimahaiak emandako gai batetik abiatuta. Honako hauek adierazi beharko dira: abestiak aipatutako curriculumaren helburuak eta edukiak, irakaskuntzari buruzko proposamen metodologikoak, horiek ebaluatzeko irizpideak eta elementuak eta horiek gauzatzean ikasleei eskatzen zaizkien gutxienekoak. 0 eta 20 puntu artean lortu ahal izango dira. Proba honetan hautagaiak gutxienez 10 puntu lortu beharko ditu prozesuan jarraitzeko.
- Epaimahaiak proposatutako melodia bati akonpainamendua egitea: Hamar minutu izango dira prestatzeko. 0 eta 10 puntu artean lortu ahal izango dira. Proba honetan hautagaiak gutxienez 5 puntu lortu beharko ditu prozesuan jarraitzeko.

LAUGARREN PROBA**MUSIKA-HIZKUNTZAKO ESPEZIALITATEAREN PROBA PEDAGOGIKOA 0-20 PUNTU**

- Programazio didaktikoa aurkeztea eta defendatzea. Lehendabizi programazio didaktiko baten aurkezpena defendatu beharko da, eta, horren ostean, epaimahaiak programazioaren inguruko galderak egin ahalko ditu. 0 eta 10 puntu artean lortu ahal izango dira. Proba honetan hautagaiak gutxienez 5 puntu lortu beharko ditu prozesuan jarraitzeko.



- Klase praktikoa ematea: oinarrizko irakaskuntzetako eta profesionaletako musika-hizkuntza. Oinarrizko irakaskuntzetako klase bat eta irakaskuntza profesionaletako beste bat emango dira. Kontserbatorioak ikasleak izango ditu klase praktikoak egiteko. 0 eta 10 puntu artean lortu ahal izango dira. Proba honetan hautagaiak gutxienez 5 puntu lortu beharko ditu prozesuan jarraitzeko.

Lehiaketa-fasea: merezimenduen balorazioa

Merezimenduak baloratzeko, hautagaiak dokumentuz eta modu sinesgarrian egiaztatu beharko dituzte. Horretarako, ziurtagiriak edo egiaztagiriak aurkeztuko dira eta eskabideei erantsiko zaizkie. Hurrengo baremoa erabiliko da:

Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

1. *Lan-esperientzia*

- Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioan musika-hizkuntzako irakaslearen kategorian (A taldea, A1 azpitaldea) edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuengatik, 0,50 puntu hilabete oso bakoitzeko (zatikiak ez dira zenbatuko), eta kontzeptu horrengatik lortutako puntuazioa ez da inola ere 24 puntutik gorakoa izango. Honako hauek ere lan-esperientziatzat baloratuko dira: hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzian emandako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotzi dakiekeen denbora, bai eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.
- Arautu gabeko ikastetxeetan estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioan musika-hizkuntzako zuzendaritzako espezialitateko irakasle gisa emandako zerbitzuengatik: 0,10 puntu hilabete oso bakoitzeko (zatikiak ez dira zenbatuko), eta kontzeptu horrengatik lortutako puntuazioa ez da inola ere 6 puntutik gorakoa izango. Honako hauek ere lan-esperientziatzat baloratuko dira: hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzian emandako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotzi dakiekeen denbora, bai eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.

2. *Prestakuntza akademikoa, guztira ere 5,5 puntu*

- Beste musika-diziplina batzuetako goi-mailako titulu bakoitzeko 1,00 puntu; gehienez ere 2,00 puntu eskuratu ahal izango dira.
- Beste musika-diziplina batzuetako gradu profesionaleko titulu bakoitzeko 0,50 puntu; gehienez ere 1,00 puntu eskuratu ahal izango dira.
- Gradu profesionaleko curriculumeko irakasgai berriekin lotutako Eusko Jaurlaritzaren gaikuntza bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez ere 0,50 puntu eskuratu ahal izango dira.
- Espezialitate bereko edo beste musika-espezialitate bateko master edo doktorego bakoitzeko: 0,50 puntu; gehienez ere puntu 1 eskuratu ahal izango da.

3. *Prestakuntza- edo espezializazio-ikastaroak*

Gehienez ere 4 puntu emango dira zentro ofizialek, erakundeek edo erakunde publikoek deialdi honetako plazan bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten gaietan onartutako, emandako edo antolatutako prestakuntza-ikastaro eta -jardueretara joateagatik eta/edo horiek irakasteagatik.

Ikastaro bakoitzeko puntuazioa honako baremo honen arabera baloratuko da:

- 10 eta 19 ordu bitarteko ikastaroak: 0,25 puntu.
- 20 eta 30 ordu bitarteko ikastaroak: 0,50 puntu.



— 31 eta 70 ordu bitarteko ikastaroak: 0,75 puntu.

— 70 ordutik gorako ikastaroak: 1,00 puntu.

Irakaskuntzaren kasuan, honako baremo honen arabera baloratuko da:

— 10 eta 19 ordu bitarteko ikastaroak: 0,50 puntu.

— 20 eta 30 ordu bitarteko ikastaroak: 1 puntu.

— 31 eta 70 ordu bitarteko ikastaroak: 1,50 puntu.

— 70 ordutik gorako ikastaroak: 2,00 puntu.

Edizio batean baino gehiagotan gai bera jaso edo irakatsi bada, azken edizioan baino ez da baloratuko, salbu eta, aldaketa tekniko edo arau-aldaketen ondorioz, epaimahaiak funtsezko aldaketak egin direla uste duenean. Azken kasu horretan, gehienez 2 ikastaro baloratuko dira. Ez dira ikasketa-planen parte diren ikastaroak, irakasgaiak edo jarduerak baloratuko, ezta titulazio akademiko ofizial bat lortzeko egindakoak ere.

4. *Beste titulazio eta ikasketa batzuk*

— Unibertsitateko diplomatura edo titulazio baliokide bakoitzeko, 0,25 puntu, eta unibertsitateko lizentziatura edo titulazio baliokide bakoitzeko 0,50 puntu, gehienez ere puntu 1

5. *Hizkuntzak*

— Hizkuntza Eskola Ofizialeko hizkuntzen gaitasun-agiri bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez ere 1,5 puntu eskuratu ahal izango dira (euskara salbu, bere atalean baloratuko da eta).

6. *Euskararen ezagutzaren balorazioa*

Deialdiko plazak 3. hizkuntza-eskakizuna atxikita duenez, derrigortasun-datarik gabe, euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko da, honako puntuazio honen arabera:

— 1. eskakizuna: 7 puntu.

— 2. eskakizuna: 14 puntu.

— 3. eskakizuna: 21 puntu.

Hizkuntza-eskakizunen balorazioa ez da metagarria, eta, beraz, egiaztatutako mailarik handieneko hizkuntza-eskakizuna bakarrik baloratuko da. Aurreko paragrafoan adierazitako hamar eguneko epea amaitu arte lortutako mailarik altuena baloratuko da.

Euskal Sektore Publikoan euskara erabiltzearen normalizazioari buruzko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan 1. hizkuntza-eskakizunerako deskribatutako hizkuntza-gaitasunetan hautagaiek euskararen ezagutza-maila zein den zehazteko probak egingo dira, ahoz eta idatziz, betiere hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean hautagaiek hala eskatzen badute. Hautagaiak ariketa hori egitetik salbuetsita geratuko dira hizkuntza-eskakizuna honela egiaztatzen badute: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako egiaztageria aurkeztuz edo Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitze Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak ezartzen duen baliokidetasunaren arabera zentroek emandako egiaztageria aurkeztuz.

**III. ERANSKINA****1. GAI-ZERREDA: GAI OROKORRAK**

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Egitura eta funtsezko edukia. Konstituzioaren aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa. Konstituzioaren erreforma.

2. gaia. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. Oinarrizko eskubideak babestea eta etetea. Konstituzioaren defentsa juridikoa: Konstituzio Auzitegia.

3. gaia. Gorte Nagusiak. Arartekoa eta Kontuen Auzitegia. Definizioa eta eskumen orokorrak.

4. gaia. Gobernua: osaera, antolaketa eta funtzioak. Gobernuko presidentea. Gobernuaren kontrol parlamentarioa.

5. gaia. Estatuaren lurralde-antolaketa. Estatuko lurralde-antolaketaren izaera juridikoa eta printzipioak.

6. gaia. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena. Eskumenak.

7. gaia. Administrazio publikoa eta zuzenbidea. Legezkoaun-printzipioa administrazioan. Ahal arautuak eta diskrezionalak: diskrezionalitatea eta kontzeptu juridiko zehaztugabeak. Diskrezionalitatearen mugak. Diskrezionalitatearen kontrol judiziala. Boterea desbideratzea.

8. gaia. Administrazio publikoa: kontzeptua. Administrazio-instrumentala. Erakunde publikoak. Erakunde autonomoak eta enpresa-entitate publikoak. Merkataritza-sozietateak eta fundazio publikoak.

9. gaia. Administrazio publikoen printzipioak. Aginpidea eta translazio-teknikak. Hierarkia, koordinazioa eta kontrola. Herri-administrazioen arteko hitzarmenak. Eskudantzia-gatazka.

10. gaia. Ordenamendu juridiko-administratiboa. Administrazio-zuzenbidea: kontzeptua eta edukiak. Lege-xedapen motak. Lege-indarra duten arau-xedapenak. Arau juridikoak interpretatzea eta aplikatzea. Nazioarteko itunak.

11. gaia. Ordenamendu juridiko-administratiboa. Araubidea: kontzeptua eta motak. Arauak emateko ahalak. Erregelamenduak egiteko prozedura: erregulazio onaren printzipioak. Erregelamenduen mugak. Erregelamenduen baliogabetasuna. Arauak emateko ahalaren kontrola. Arauen plangintza eta ebaluazioa. Herritarren partaidetza. Arau-eraginaren azterketa-memoria.

12. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Egitura eta funtsezko edukia eta aplikazio-eremua. Administrazio-egintza: kontzeptua, elementuak eta motak. Administrazio-egintzaren forma eta zergatia. Jakinarazpena: edukia, epea eta praktika paperean eta bitarteko elektronikoen bidez. Emaizarik gabeko jakinarazpena. Argitalpena.

13. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: egitura eta funtsezko edukia. Administrazioaren antolaketa-ahalmena. Administrazio-unitateak eta -organoak sortu, aldatu eta bertan behera utzi. Organo motak. Aipamen berezia kide anitzeko organoei.

14. gaia. Tokiko araubidea. Tokiko Administrazioa Konstituzioan eta Autonomia Estatutuetan. Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna. Toki autonomiaren printzipioa: esanahia, edukia eta mugak.

15. gaia. Tokiko zuzenbidearen iturriak. Tokiko araubideari buruzko estatuko oinarritzko legeria eta autonomia-erkidegoetakoa. Lege sektorialek tokiko araubidean duten eragina. Tokiko erakundeek araudiak egiteko duten ahalak: erregelamenduak eta ordenantzak. Egiteko prozedura. Erregelamendu organikoa. Bandoak.

16. gaia. Tokiko erakundeen aurrekontu orokorra: kontzeptua eta edukia. Aurrekontua egiteko oinarriei buruzko aipamen berezia. Aurrekontua egitea eta onestea. Aurrekontuaren luzapena.



17. gaia. Tokiko ogasunen baliabideak. Tokiko zergak: printzipioak. Tokiko erakundeek zergen arloan duten erregelamendu-ahala: zerga-ordenantzen edukia, zergak ezarri eta agintzeko ekintzen kontra egiteko araubidea eta tramitazioa. Zerga-alorrekoak ez diren baliabideak ezartzea.

18. gaia. 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena. Barakaldoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana.

2. GAI-ZERREDA: MUSIKA-HIZKUNTZAKO ESPEZIALITATEKO GAI ESPEZIFIKOAK

1. gaia. Musika-hizkuntza: Bilakaera historikoa. Pedagogo nagusiak: musika-hizkuntzarekin lotutako bibliografiak aztertzea.

2. gaia. Musika-pedagogiako gaur egungo metodoak eta sistemak. Musika-ikerketak: gaur egungo tresna kuantitatiboak eta kualitatiboak.

3. gaia. Musika-irakurketa: bilakaera, irakurketa horizontala eta bertikala, klaberik gabeko irakurketa interbalikoa, irakurketa lehen begiratuan eta irakurketa artikulatua.

4. gaia. Idazkera musikaren garrantzia: idazkera melodikoa eta idazkera harmonikoa. Grafia ez-konbentzionalak musika irakurtzean eta idaztean.

5. gaia. Ahotsa eta bere fisiologia. Arnasketa, erlaxazioa eta bokalizazioa, bai ahozko ahotsean, bai ahots kantatuan. Ahotsen sailkapena eta hedapena.

6. gaia. Ahotsa haurtzaroan eta nerabezaroan. Ezaugarri espezifikoak eta horien arazoa. Ahotsa zaintzea eta asaldura fisikoek eta psikikoek ahotsean duten eragina. Musika-hizkuntzako irakaslearen ahotsa: zaintzea eta mantentzea.

7. gaia. Intonazioa, afinazioa eta enpastea. Intonazio imitatua eta intonazio kontzientea. Artikulazioa eta fraseatzea.

8. gaia. Akonpainatutako intonazioaren eta a capella intonazioaren garrantzia. Interbalika hutsa eta obra post-tonaletan edo atonaletan duen aplikazioa.

9. gaia. Herri-kantuaren eta egile-kantuaren eragina musika-heziketaren prozesuan.

10. gaia. Kanona, abesbatzen hastapenerako baliabide didaktiko gisa. Ahots-errepertorio monodikoa eta polifonikoa hautatzeko irizpide didaktikoak.

11. gaia. Belarrien anatomia eta fisiologia. Entzumenaren psikologia: garapena. Kognitiboa, zergatia.

12. gaia. Entzumen motak. Entzumena XX. mendeko metodologia musikaletan.

13. gaia. Entzumen ulerkorra. Entzumenaren didaktika: elementu erritmikoak, melodikoak, modulatorioak, kadentzialak, formalak, tinbrikoak, estilistikoak eta bestelakoak entzuteko erabiltzen diren teknikak eta baliabideak.

14. gaia. Fenomeno fisiko harmonikoa. Soinuaren ezaugarriak. Uhin-mugimendua. Afinazio-sistemen oinarriak.

15. gaia. Serie harmonikoa. Bitarteei lotutako proportzioak: kontsonantzia eta disonantzia. Indize akustikoak. Fourierren seriea.

16. gaia. Organologia: Musika-tresnen sailkapena. Instrumentuak musika-hizkuntzako gelan. Gorputza tresna gisa.

17. gaia. Transposizio-instrumentuak, elektronikoak, sintesia eta soinuaren manipulazio artifiziala.

18. gaia. Tempo musikala. Tempo terminoetan adierazi aurretik zehaztea.

19. gaia. Tempoari buruzko termino erlatiboak eta absolutuak. Agogika.

20. gaia. Erritmoaren bilakaera, hasieratik XX. mendera arte: metrika literarioa, oin metrikokoak eta modu erritmikoak. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea

21. gaia. Konpasen jatorria eta bilakaera. Isiltasunaren garrantzia.



22. gaia. Erritmoa: ibilbidea eta bilakaera XX. mendetik aurrera. Baliokidetasuna eta erritmoan duen inplikazioa. Balorazio berezia eta talde erritmiko irregularrak.
23. gaia. Polimetriak eta polirritmiak. Azentuazio metrikoa aldatzea. Musika konpasik gabe. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
24. gaia. Modalitatea: Bilakaera historikoa. Tonalitatetik disoluzio tonalera bitarteko bilakaera.
25. gaia. Eskala motak historian zehar. Bitartea: Kontsonantzia eta disonantzia. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
26. gaia. Monodia eta melodia. Lerro melodikoen aldiberekotasuna. Sentimendu harmonikotik harmonia sistematizatura.
27. gaia. Melodiak musika-hizkuntzan duen garrantzia. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
28. gaia. Akordeak: jatorria, tipologia eta funtzionaltasuna. Kadentziak: jatorria, tipologia eta funtzionaltasuna.
29. gaia. Modulazioa: garapen historikoa, motak eta prozedurak. Modulazioaren adierazpen-funtzioa.
30. gaia. Musika-hizkuntzak musika-hizkuntzan duen garrantzia.
31. gaia. Forma: bilakaera historikoa eta egitura formalak ahots- eta instrumentu-musikan XX. mendera arte. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
32. gaia. Forma eta estiloen aniztasuna musika garaikidean. Forma sortzen duten prozedurak. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
33. gaia. Musika-notazioa: bilakaera historikoa pneumetarik egungo notazioetara.
34. gaia. Musika-adierazpena: interpretazioari eragiten dioten ohiko zeinuak edo terminoak, tradizionalak zein ez-konbentzionalak.
35. gaia. Transkripzioa: kontzeptu orokorrak eta transkripzioak interpretatzeko irizpideak.
36. gaia. Transkripzioaren aplikazio didaktikoa musika-hizkuntzako gelan.
37. gaia. Ornamentazioa: jatorria, bilakaera eta eskolak. Haren interpretazioa, kontuan hartuta egilea eta garaia. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
38. gaia. Transposizioa: jatorria, funtzioa, motak, teknikak eta musika-praktikan aplikatzea. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
39. gaia. Jazzaren, flamenkoaren eta beste herri-musika batzuen azterketa musikala eta soziologikoa. Musika-hizkuntzaren didaktikan aplikatzea
40. gaia. Arte eszenikoak: musika, dantza eta arte dramatikoa. Musika-hizkuntza dantzaren eta arte dramatikoaren curriculumeko beste irakasgaiekin lotzea.
41. gaia. Musika-hizkuntzako irakasleen eta arte eszenikoen arteko lotura.
42. gaia. Euskarri elektronikodun musika erabiltzea ekoizpen eszenikoetan edo ikus-entzunezkoetan.
43. gaia. Musika dantzaren curriculumeko maila guztietan. Musika-hizkuntzaren eta dantzaren arteko lotura.
44. gaia. Gorputza eta mugimendua musika-adierazpide gisa: gorputza instrumentu gisa.
45. gaia. Euskarri elektronikodun dantza erabiltzea ekoizpen eszenikoetan edo ikus-entzunezkoetan.
46. gaia. Musika arte dramatikoaren curriculumeko maila guztietan. Musika-hizkuntzaren eta arte dramatikoaren arteko lotura.
47. gaia. Mimika eta keinua, komunikazio-adierazpide gisa. Euskarri elektronikodun arte dramatikoa erabiltzea ekoizpen eszenikoetan edo ikus-entzunezkoetan.



48. gaia. Sormena eta haren garapena. Sormena garapen instrumentalaren alderdi guztiei aplikatuta: teknika, adierazteko edo komunikatzeko gaitasuna, adimen musikala eta nortasun artistikoa.
49. gaia. Espiritu ekintzailearen garapena: izaera ekintzaileak barne hartzen dituen ezaugarriak, trebetasunak, jarrerak eta balioak
50. gaia. Lan egiteko metodoak eta ikasteko autonomia garatzea.
51. gaia. Ikasleak musika-testuaren zailtasunei konponbideak aurkitzeko duen gaitasuna garatzea. Estrategia egokiak.
52. gaia. Oroimena. Oroimena hezteak, barneko entzumena eratzeko eta pixkanaka garatzeko oinarri gisa.
53. gaia. Oroimen sentzoriala. Oroimen motak. Faktoreak oroimenaren erabileran.
54. gaia. Oroimena ezinbesteko elementu gisa musika-hizkuntza osatzen duten alderdi guztietan. Memorizazio-teknikak
56. gaia. Diziplinartekotasuna musika-hizkuntzaren ikasketetan. Curriculumeko irakasgaiek elkarren artean duten lotura.
57. gaia. Musika ondare historiko-artistiko kultural gisa. Musikak korrante estetikoekin eta gainerako arteekin duen lotura.
58. gaia. Irakaslearen erantzukizuna horiek balioesteko, zaintzeko eta egungo zein etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko.
59. gaia. Musikaren irakaskuntza eta ikaskuntza aplikatutako informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.
60. gaia. Software musikala erabiltzearen eta interneteko baliabideak hautatzearen garrantzia.
61. gaia. Musika-kontserbatorioak. Bere eredia justifikatzen duten arrazoiak. Herritar guztiak musikara eta dantzara sartzea. Garapen-horizonteak.
62. gaia. Musika-kontserbatorioaren jardura: erabiltzaileen profilak eta gizarte-koherentsia: kultura- eta gizarte-politikak garatzeko tresnak.
63. gaia. Musika-kontserbatorio baten hezkuntza-eskaintzaren egituraketa. Hura baldintzatzen duten elementuak. Musikaren irakaskuntza eta ikaskuntza: didaktiken, helburuen eta erabiltzaileen aniztasuna.
64. gaia. Musika-kontserbatorio profesionaleko irakasleen profila
65. gaia. Programazio didaktikoa: printzipio psikopedagogikoak eta didaktikoak. Curriculum-proiektuarekiko lotura. Unitate didaktikoen egitura.
66. gaia. Musika-hizkuntzako irakaskuntza zehaztea eta oinarrizko graduetan eta gradu profesionaletan aplikatzea
67. gaia. Ebaluazio-irizpideen funtzioa. Ikaslea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea.
68. gaia. Ebaluazio-prozedurak eta -tresnak. Autoebaluazioa. Koebaluazioa. Kalifikazioa. Errekuperazioa.
69. gaia. Musika-kontserbatorioetako tutoretza-ekintza. Tutoretza-funtzioak eta -jarduerak. Tutorea eta irakasle-taldearekin eta ikasleekin duen harremana.
70. gaia. Familiak musika-hezkuntza duen zeregina. Irakasleen eta gurasoen lankidetzak hezkuntza-etapa guztietan.
71. gaia. Musika-kontserbatorioetan musika-hizkuntza irakasgaian erabili beharreko bibliografia eta materiala hautatzeko irizpide didaktikoak. Irakaslearen talde-lanaren eta banakako lanaren orientazioa: ikasteko autonomia.
72. gaia. Funtsezko desberdintasunak kontserbatorioen eta musika- eta dantza-eskolen arteko antolamendu- eta pedagogia-funtzionamenduan.